

OSASUN-LARRIALDIARI BURUZKO ERTZAINZAREN IRIZPIDEAK **(2020/03/20)**

Merkataritza-jarduerak edo antzekoak irekitzeari buruz. Ireki al daitezke?

1. Ze merkataritza-lokal egon daitezke irekita?

Hauek bakarrik: janari eta edari dendak, farmaziak, osasun-zentroak, optikak, ortopediak, higiene-produktuen dendak, prentsa eta paper dendak, gasolindegia, estankoak, teknologiko eta telekomunikazioetako produktuen dendak, etxeko animalientzat janaria saltzen dutenak, Internet, telefono edo posta bidezko merkataritza-dendak, tindategiak, arropa-garbitegiak eta albaitaritza-klinikak.

2. Jendearentzat itxita dauden jatetxe eta janari-establezimenduek prestatu al dezakete etxera eramateko janaria?

Etxez etxeko salmenta bakarrik dago berariaz baimenduta.

3. Janari-establezimenduek saldu al dezakete prestatutako janaria?

Eramateko baldin bada bakarrik. Inola ere ezin da establezimenduan kontsumitu.

4. Okindegiek saldu al dezakete edaririk, kafea barne dela?

Eramateko bakarrik sal ditzakete produktuak, inola ere ez establezimenduan kontsumitzeko.

5. Ireki al daiteke zerbitzugune edo gasolindegi bateko jatetxea edo kafetegia?

Ez, baina dendan janaria eta edaria sal daiteke.

6. Ile-apaindegiak?

Lokala ezin da ireki. Etxez etxeko zerbitzu profesionala onartuta dago.

7. Lokutorioak?

Ez, ez baitaude jasota nahitaez itxita egon behar duten lokalen salbuespenen artean.

8. Asteroko azokak?

Bai, baimendutako produktuak saltzeko bakarrik, eta ezarritako osasun-arauak betetzen badira.

9. Automozioko tailer mekanikoak?

Bai, baina premiazko konponketak egiteko bakarrik.

10. Partikularrei ibilgailuak alokatzeko enpresak?

Merkataritza-lokalak ezin dira ireki, merkataritza-jarduera minoristatzat hartzen baitira. Aurretik alokatutako ibilgailuak itzul daitezke.

11. Profesionalei ibilgailuak alokatzeko enpresak?

Horiek egon daitezke irekita, baina ibilgailu profesionalak alokatzeko bakarrik.

OSASUN-LARRIALDIARI BURUZKO ERTZAINZAREN IRIZPIDEAK **(2020/03/20)**

12. Fabrikatu ere egiten duten merkataritza-jarduerak lan egin al dezakete ateari itxita?

Bai, bertan tailerra badute jarrai dezakete lanean ateari itxita.

Joan-etorriei buruz

1. Ziurtagiri edo agiriren bat eraman behar al da oinez edo autoan zirkulatu ahal izateko?

Identifikatzen diren pertsonen ez zaie inolako ziurtagiririk eskatuko, nahiz eta baloratu egingo den joan-etorria justifikatzeko ematen duen informazioa. Emandako informazioak zalantzaren bat sortzen badu, beste bitarteko batzuk erabiliz egiaztatu ahal izango da. Oraingo ez dago mugikortasun-ziurtagiri ofizialik.

2. Pertsona bat ibil al daiteke bide publikoetan?

Pertsonen honako kasu hauetan zirkulatu ahal izango dute bide edo eremu publikoetatik:

- a) Elikagaiak, produktu farmazeutikoak eta behar-beharrezkoak direnak erosteko.
- b) Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joateko.
- c) Lantokira joateko, lan egitera edo jarduera profesionala edo enpresariala egitera.
- d) Ohiko bizilekura itzultzeko.
- e) Adinekoei, adingabeei, mendekoei, desgaitasuna duten pertsonen edo bereziki ahulak diren pertsonen laguntzeko eta zaintza emateko.
- f) Finantza- eta aseguru-erakundeetara joateko.
- g) Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
- h) Antzeko beste jarduera batzuk egiteko.

Desplazamendu horiek banaka egin beharko dira, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko edo bestelako arrazoi justifikatu batengatik ez bada.

Hala ere, desplazamenduak ahalik eta gehien mugatu behar dira.

3. Establezimendu batean sartzean, zer-nolako neurriak hartu behar dira?

Establezimendu batean beharrezkoa den erorketa egiteko ezinbestekoa den denboran egon behar da. Pertsonen artean metro 1etik 2ra arteko distantzia gordetzea gomendatzen da.

4. Mendeko familiartekoak bisitatu al daitezke?

Bai, zaintza eta laguntza emateko.

5. Mendeko pertsona bat naiz. Arreta ematen didan pertsona etorri ahal izango da?

Bai, baimendutako oinarriko zerbitzuetako bat da.

6. Adingabeen zaintza aldatzeko mugitu al naiteke?

OSASUN-LARRIALDIARI BURUZKO ERTZAINZAREN IRIZPIDEAK **(2020/03/20)**

Bai, adingabe bat artatzea dela ulertzen da.

7. Eraman al ditzaket haurrak parkera?

Ez.

8. Utzi al ditzaket seme-alabak normalean zaintzen dituen pertsonaren kargura lanera joan behar badut?

Bai, adingabeak edo mendekoak zaintzea dela ulertzen da.

9. Jaitsi al daiteke zaborra kalera?

Bai, hurbilen dagoen gunera, eta ezinbestekoa den denboran.

10. Bizi garen eraikineko eremu komunetan (patioan, lorategian, eskaileretan...) egon al naiteke?

Ez, erabilera komunitarioko eremu pribatuak baitira.

11. Maskota atera al dezaket paseatzera?

Bai, banaka, ezinbestekoa den denboran eta etxebizitzatik hurbil.

12. Joan al daiteke parkera, hondartzara edo mendira?

Ez, ez daude jasota eremu publikoan baimenduta dauden mugimenduetan.

13. Zer muga dago ibilgailu partikularretan ibil daitekeen pertsona-kopuruari dagokionez?

Ibilgailu batean pertsona bat baino gehiago ibili ahal izango dira euren artean gutxienez metro bateko distantzia mantentzen bada eta 463/2020 Errege Dekretuan zehaztutako kasuetan bakarrik. Esate baterako, auto batean gehienez bi pertsona joango dira, gidaria eta bidaiari bat, eta bidaiaria atzeko eserlekuan, gidariarekiko diagonalean, eseriko da.

14. Mugatuta al dago ibilgailu profesionaletan edo enpresako ibilgailuetan ibil daitekeen pertsona-kopurua ere?

Lanerako erabiltzen ari diren ibilgailu profesionalen edo enpresako ibilgailuen (furgonetak, kamioiak) kasuan, gidaria eta kopilotua ibili ahal izango dira, baldin eta euren artean metro bateko distantzia gordetzen badute.

15. Zirkulatu al daiteke motozikletan edo bizikletan?

Bai, aurreikusitako kasuetan eta banaka.

16. Eta taxietan?

Banaka, desgaitasuna duen pertsona bati, adingabe bati, adineko bati edo autonomiarik ez duen pertsona bati laguntzeko kasuetan izan ezik.

17. Joan al naiteke familiarteko baten bila aireportura, geltokira...?

OSASUN-LARRIALDIARI BURUZKO ERTZAINZAREN IRIZPIDEAK **(2020/03/20)**

Ez dago berariaz aurreikusita eremu publikoko mugikortasun-salbuespenetan. Aurreikusita dago desgaitasuna duten pertsonen, adingabeei edo premia bereziak dituzten beste pertsona batzuei laguntzeko denean edo justifikatuta dagoenean.

18. Irten al daiteke kontratu bat, agiri bat edo antzeko zerbait sinatzera?

Arrazoi justifikatu batengatik bada bakarrik, eta atzeraezina bada.

19. Pakete-banatzaileek zirkulatu al dezakete euren lana egiteko?

Bai, euren lan-jardueraren baitan.

20. Joan al daiteke tanatorioetako edo hilerrietako hil-beiletarako geletara?

Bai, jende-pilaketak saihesteko aurreikusitako neurriak errespetatzen eta distantziak gordetzen badira.

21. Joan al daiteke odola ematera?

Bai, osasun-agintaritzak deituta eta neurriak hartuta.

22. Joan al daiteke bigarren bizilekura?

Ez.

23. Bidaiarien garraio publikoa.

Era honetako garraioan Osasun Zerbitzuak ezarritako neurriak errespetatuko dira, eta bidaiarien artean gutxienez metro bateko distantzia gordeko da derrigorrean.